



BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

546. zkia.

XIII. urtea

2005eko urriaren 14a

Tertuliak programa

Euskaldun zaharrek eta berriak tertulian



autonomoentzako eta mikroenpresetarako
doako **mintegiak**

Deba Barrena
urriak 18 octubre
ELGOIBAR
Makina Erremintaren
Institutua (IMH)

Zer egin zabor-postatik libratzeko

Horario / Ordutegia:
18:00-20:00

Zabor-postak gure postontziak gainezkutzen ditu. **Birusek, spywareek, adwareek eta phishingek** gure sistema informatikoak arriskuan jartzen dituzte. Nola ekidin daitezkeen erakutsiko dizugu kasu praktikoen bidez, eta gainera **doakoak eta kostu baxukoak diren soluzioak azalduko dizkizugu.**

Información e inscripciones:
Informatzeko eta izena emateko:

943 747 314

www.miramondigital.com

cursos@miramondigital.com

Antolatzailea:



Miramon
Enpresa Digitala

Sustatzaileak:



Gipuzkoako Foru Erkidegoa
Departamento Social de Gipuzkoa

euskadi **e-gipuzkoa** **SPRI**



**ELGOIBARKO MERKATARI
ETA ZERBITZU ELKARTEA**

Elgoibarko Merkatarari eta Zerbitzu Elkartek gonbidatzen zaitu

SAGARDO EGUNA

Urriak 15, larunbata Nafarroa Plazan

Zatoz TXANKAKUArekin aire librean
SAGARDOTEGIko ohiko giroaz gozatzera:

- TRIKITILARI eta BERTSOLARIEK jaialdia girotuko dute.
- Txikientzat TXU-TXU tren.
- TXORIZO PINTXOAK egongo dira eta edalontzi bat erostean nahi duzun SAGARDO guztia edango duzu eta OPARI PRAKTIKO BAT emango dizugu.

Anima zaitetz, zain gauzkazu!

Babesleak:



Elgoibarko Udala





AINHOA MENDIBIL

Artista!!!

Iluntzeon poliit hori! Kontu txikitxo bat esan behar dizut garrasika. Pozik nago.

Orain artean negua iritsi eta Karakate inoiz baino ilunago ikusten nuen.

Egunak luzeak izaten ziren (baina tristeak) eta gauzez telebista ikusteak lo egiteak baino pisu gehiago balu bezala, berandu batzen ninduten maindireek.

Neguak rutina berba izaten zuen atzetik arrastaka eta udak berriz askatasuna. Neguan loturak behar izaten nituen zutik mantentzeko eta udan berriz, loturek, zutik mantendu zitekeen txoria ito eta ziplo eror ninteketen lotzen hasiz gero.

Irailak begiak ilundu egiten zizkidan. Eta alboan norbait izateak laguntzen zidan, bere begietatik gauzen edertasuna orduan ere gozaten.

Orain arteko poztasuna, belarrira aitortzeko horietakoa izan ohi da. Akaso garrasika esanda, laster alde egingo zuelakoan edo, irribarre isilak soilik bidaltzen nituen.

Aurten berriz, begiak argi-argi, ni neuhikoa naiz gauza bakoitzari nahi diodan edertasun puntua ikusteko.

Guk geuk geure begietatik gauzak ikusteak ere badu bere xarma ezta Amaia?

Patxo haundi bat (belarri alboan; baina garrasika).

ZOZOAK BELEARI...



AMAIA GORROTXATEGI

Ze pasatzen da!!

Zure patxo oihukaria Bilbo "negu beltz"eko lurrazpiko ordenagailu gela hontan sartu da, horiz jantzita; eta bai, zuk diozun errutina hotz hori apurtu du. "Negurrutina".

Ez dakit zergatik, baina ni ere norbaiti belarrira deiadar egiteko gogoz nabil azken aldi honetan eta sumatzen dut zure arrazoi berberak ditudala.

Garrasi egin nahi dut gauza naizela bakarrik altxatzeko, prest nagoela txontxongilo gisa lurretik goratzen nauten sokak mozteko!

Baina ez dut garrasi egiten. Jakitearekin zorionsu naiz.

Niri oraindik ere irailak begiak iluntzen dizkit, eta argiak beldurtzen nau.

Argitan ez baitago itsusia eder ikusterik edota inor konturatu gabe garrasi egiterik!

Ez al da iluntasuna akaso gauzak ikusteko erarik goxoa?

Bai, Ainhoa, badu bere xarma norbere begietatik gauzak ikusteak, beste bi begi ilunetan norbere buruaren isla ikusi gabe edertasuna bilatzeak; eta hau zer den jakitea beharrezkoa iruditzen zaidan arren, egia esan, duen xarma ez da oso handia; lau begik, bik baino edertasun gehiago ikusten baitute, eta elkarri begiratzen badiote, are gehiago.

«Neguak rutina berba izaten zuen atzetik arrastaka, udak askatasuna»

AINHOA

«Niri oraindik ere irailak begiak iluntzen dizkit»

AMAIA

“BELAUNALDI BERRIEI AURRERA EGITEN UTZI BEHAR ZAIE; HALA ERE, USTEN EZ BAZAIE BEREN KABUZ HARTZEN DUTE AURREA”

Luciano Lama

18/98

Ideiak kriminalizatzen dituen legeak, legearen ideiarekin zilegitasuna kolokan jartzen du. Legala justua izan dadin, pertsona guztiak, ideia guztiak, proiektu guztiak. Urriaren 15ean Iruñean hasi eta azaroaren 12an Durangon amaituko den Kaiera-n partehartzera animatzen zaituztet.

AA - 72575981-X

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENeN edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. Eskutitzak izen-abizenekin inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
3. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
4. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeek zuzenduriko mehatxuak...
5. Ez dugu gaztelera datorren eskutitz argitaratuko.

E-POSTA

barren@elgoibarkoizarra.com



BARRENeK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.

[b]arren

Argitaratzailea:



Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea **PUBLIZITATEA** Eider Iriondo **MAKETATZAILEA** Jaione Unanue **KOLABORATZAILEAK** Anton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Mikel Comejo, Juanito Garosiza, Amaia Garrotelegi, Sare Gumutzaga, Inanol Ibarra, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odría, Maialen Olazabal, Iban Urtzar, Kokoe KE, Uruzuno, Unai Villena, Alaitz Vives **ESAERA ZAHARRA** Gotzon Garderen liburukik **INPRIMATEGIA** Geru **TRADA** 4.410 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.

KEXAK

- Herritar batek esan digunez, **tren estazio ondoko aparkalekuan gaizki aparkatzen du jendeak eta askotan ezin izaten da bertara sartu**: "Estazio ondoko aparkalekua oso hestua da, eta jendeak autoa edo furgoneta gaizki aparkatzen badu ez da pasatzeko lekurik egoten. Gainera, aparkalekuak oso sarrera txarra dauka, eta askotan bide erdian geratuta maniobra zailak egin behar izaten dira. Autoak gaizki aparkatuta baldin badaude aparkalekura sartu ere, ezin izaten da egin askotan. Behin baino gehiagotan ispilu erretrobisoreren bat noiz joko dudan pasatzen naiz. Mesedez, jendeak errespetatu ditzala aparkalekuaren neurriak, denon hoberako izango da-eta".



TXALOAK



- Herritar batek **Udala txalotu nahi du parkeetako bankuak aldatu dituztelako**: "Azken egunotan herriko hainbat parketan jarleku berriak jarri dituzte. Plaza Txikian eta Madalako parkean adibidez, lehengo banko zaharrak kendu eta berriak jarri dituzte. Jarleku handiagoak eta dotoreagoak dira. Beste itxura bat ematen diote parkeari, eta oso erosoa dira".

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Nafarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12

- Goian bego -



**SABIN
LARREATEGUI ORUNA**

2005eko urriaren 8an hil zen

80 urte zituela.

Benetako euskaldun

jatorren kidea

beti erabili duzu

nekezko bidea

zuk ondo bete duzu

euskaldunen legea



EAKO ALDERDIKIDEAK



URRUZUNOREN Luma

Gaur nirekin esnatu zara

Nahia eta ezina eskutik helduta joaten dira maiz. Bai, badakit zer dioen esaerak, "Bizi hadi, bada, ahal duan bezala, nahi duan bezala ezin bahaiz bizi". Ameriketara irakasle aritu zen lagun batek esan zidan hango leloa oso bestelakoa dela: "Nahi baduzu, lortuko duzu". Eta, pentsatzen jarrita, gehiago gustatu zait haiena geurea baino. Nahiz eta jakin desio ditugun gauza guztiak ezin direla lortu. Nahiz eta urteen eraginez ondotoxo jakin ametsak ez direla betetzen. Ez direla **beti** betetzen. Baina, aukeran, egia esango dizuet, nahiago dut desioen erreinuan Errauskine izan, frustrazioen palazioan erregin bizi baino. Ulertzen didazue, ezta? Lortu ditudan ametsekin soineko bat josiko dut eta biluzik, ahul, indarrik gabe sentitzen naizen egun horietan jantziko dut. Egun batean nahi nuena lortu nuela argi eta garbi izateko. Batzuetan ezinezkoa posible baita. Just do it.

Jasone Osoro

komikia

Hil da gero... Pipo Sonajero



Kokoe 033

[ZORTZIKO TXIKIAN]



ISABEL BARRUTIA

URZELAI
ARGIZTAPENA

• **Itsasoko ura ala mendiko zelaiak nahiago?**

Dudarik gabe itsasaldea eta leku bat aukeratzekotan Getaria.

• **Zerk argitzen dizu eguna?**

Nire familia pozik dagoela ikusteak.

• **Zerk ateratzen dizkizu 'txispak'?**

Pertsona batzuren larderiak edo prepotentziak amorrua ematen dit, gainontzekoak baino gehiago direla edo daki-tela uste izateak, alegia.

• **Bizitza honetan argi eta garbi daukat...**

Familia pozik izatea eta osasun ona edukitzea dela garrantzitsuena eta Euskal Herria maite dudala.

• **Nori sartuko zenioke mingaina entxufean?**

Politikari askori.

• **Zer egoerak urtzen zaitu suak argizaria moduan?**

Arazakeriak, ume bat parrez ikusteak, abesti on bat entzuteak... gauza asko ailegatzten zaizkit muineraino, zorionez.

• **Telebistako zer programara zaude entxufatuta?**

Teleberrietara eta Tele 5-ko albistegietara.

• **Zer ospatuko zenuke kandela batzuen inguruan?**

Nire senarrarekin urteurren bat, esaterako.

[AKORDATZEN NAIZ]



JOSE MARI BETELU

1932an jaioa

«Ligiak»

Guk, koadrillan, oso gitxi egitten gendun neskatan, gehixago izan gera parrandazaliak, neskazaliak baiño. Juergaz juerga, txikiteua, kantuan egiñez: horixe zan guri gustatzen jakuna. Eibarrera eta beste herri askotara juten giñan parrandara. Mendira jutia ere asko gustatzen jakun, eta neskatan egitteko denporarik ez zakagun.

Ni berandu ezkondu nitzan, 34 urte nakazen, ixa mutilzahar; justu-justu harrapau zidan. Orduan jende asko geratzen zan mutilzahar eta neskazahar.



Zelako neskak, gaiñera! Gaur egunian ikusten dittut emakume onak, jatorrak eta ez dot entendiitzen zelan geratu diran horrek neskazahar! Eliziak indar asko zakan orduan, eta dana pekatua zan, andrazkuentzat, gaiñera, gehixago, eta zaila zan eurentzat mutilletan egittia.

Nere andria Endoixakua da, eta Itziarren ezkondu giñan. Ezkonbidai Valentzia eta Alikante aldera egin gendun. Hogei egun inguru egon giñan, eta oso ondo ibilli giñan. Gerora, seme-alabak etorri ziran.

[GURE BERBAK]

Esapide adierazgarriak (3)

Gaurkuan esapide adierazgarriren, indargarriren erakusgarri gehixago ekarriko dittut hona; herriko hiztunen jardunetatik ataratakuak dira gehixenak.

- *Jolin! Oiñ takua ta abarra ipintzen dabe pelotarixak!*
- *Aittiaren da semiaren! Holakorik ikusi be nenguan gaur arte.*
- *Egon hadi lasai, aittaren batian amaittuko dogu-ta lan hau.*
- *Kerixak batzen ari zala, basarritarra ikusi, eta etxando birutas aldegiñ jok Mikelek!*
- *-Zu San Bartolomietan kalia ibilliko zera, ezta? -Bai, jakiña! Ibilliko ez naiz ba!*
- *Oingo honetan irabaziko juagu ba partidua, Alajainkia!*
- *Hori don etxe garaua erosi dabana gure Kontxitak!*
- *Egundoko egun edarra pasau genduan domekan!*
- *Etxagok ama(re)n semerik neri musian irabaziko didanik!*
- *Kriston koixe politta ekari dau gure alabak!*
- *Sekulako kolpia hartu jok gure aittak kotxiakin!*
- *Dedios! Hamaika holako ikusteko jaixuak gara!*
- *Beltza dok, ba! Oinguan ere dana gaizki erten jakuk!*

Jesus Mari Makazaga



TERAPIA FAMILIARRA
(bikote eta banakako terapia)

PSIKOLOGIA

CHARREMAN ARAZOAK:
bikotearen, familiarekin edo kideekin

¶ LIMEEN ETA NERABEEN ARAZOAK

¶ ANTSIETATEA

¶ DEPRESIOA

¶ ESTRESA

¶ ELIKADURA ARAZOAK

¶ AUTOESTIMA

HERRIA EDORRA
BIZIAGI BAIKO-1.

mintan erajika 676 61 70 55



Bulkatu S. Coop.

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A

Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA

EUSKALDUN ZAHAR ETA BERRIAK EUSKARAZ

TERTULIAK PROGRAMA

“Euskal Herrian Euskaraz” esaten du abesti zahar batek, eta gu Euskal Herrian gaudenez, euskaldun berriek euskaldun zaharrekin euskaraz hitz egiteko programa bat jarri zuen martxan Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak 2000. urtean. Elgoibarko Udala eta herriko bi euskaltegiekin elkarlanean, tertuliak programa sortu zen, beraz. Programa honek erantzun oso ona izan duenez, aurtengo ikasturtean ere martxan jarriko da. Programa honen berri jakiteko, tertulietan parte hartzen duten euskaldun zahar eta berriekin berba egin dugu.

ASTEAN ORDUBETE

Astean ordubeteko saioak izaten dira tertuliak. laz 6 talde desberdin zeuden, eta bakoitzak bere euskaldun zaharra dauka. Talde bakoitzean 3 edo 4 euskaldun berri elkartzen dira. Kafetxo bat hartu eta mahai baten bueltan biltzen dira batzuk euskaraz hitz egiteko, beste batzuk ordea, nahiago dute pasiaratxo bat egiten duten bitartean hitz egitea. Helburu bakarra, euskaraz hitz egitea da.

Azaroan jarriko dira martxan aurtengo tertuliak, beraz, bertan parte hartzeko interesa dutenek, oraindik izena emateko garaiz dabilta. Herriko bi euskaltegietan edo Elgoibarko Izarrara (943 74 16 26) deituta eman daiteke izena.



«Euskaraz dena ulertzen nuen, baina hitz egiteak beldurra ematen zidan»

EMILIO FERNANDEZ Euskaldun berria

• Zergatik erabaki zenuen euskara ikatea?

Betidanik izan dut euskara ikasteko grina. Beti hasteko nengoen, baina ez nuen azkenengo pausoa ematen. Azkenean duela lau urte animatu nintzen eta euskaltegian izena eman nuen.

• Nolako izan zen euskaltegiko esperientzia?

Oso ona, oso gustura ibili nintzen. Hasieratik nahiko maila altua neukala esan zidaten, eta zuzenean 7. mailan hasi nintzen. Bigarren urtean ez zen nire mailako talderik osatu, eta tertulietan hasi nintzen. Hurrengo urtean EGA ateratzeko taldean sartzeko proposamena egin zidan irakasleak. Beldur apur bat ematen zidan, baina aurrera egin nuen, eta EGA azterketa gainditzea lortu nuen. Oso pozik nago.

• Oraindik jarraitzen al duzu euskaltegian?

Ez, utzi egin nuen. Bi urtez egon nintzen euskara ikasten, eta nahiko maila ona lortu nuenez, uztea erabaki nuen.

• Euskaltegira joan aurretik hitz egiten al zenuen euskaraz?

Ez, hitz bat bera ere ez nuen egiten euskaraz. Ulertu bai, ondo ulertzen nuen.

Gustatzen zait irratia eta telebista euskaraz entzutea, baina hitz egiteak lotsa eta beldurra ematen zidan. Euskararekiko harremanik gabe 10 urte inguru egon nintzen. Ikasketak gaztele-raz egin nituen, eta euskara ikasgai bezala ematen zigutenean ez genuen gauza askorik ikasten. Honela ezin nintzen euskaraz hitz egitera ausartu. Orain maila altua daukadan arren, kostatu egiten zait lehenengo hitza euskaraz esatera. Hasten naizenean ondo moldatzen naiz.

• Nolatan hasi zinen tertulietan parte hartzen?

Hitz egiteko erraztasuna hartzeko, lotsa kendu eta euskaraz lasai hitz egiteko.

• Gustura joaten al zara?

Bai, ez dut klase bat bezala hartzen. Trago bat hartu eta lasai hitz egiten dut, hanka sartzeko beldurrik gabe.

• Tertulietatik kanpo egiten al duzu euskaraz?

Kostatzen zait, baina poliki-poliki hasi naiz. Ohitura aldatzea oso zaila da. Lanean jende askok daki euskaraz, baina nirekin erderaz egiteko ohitura daukate, eta oraindik erderaz egiten jarraitzen dugu.



«Euskaldun berrien hizkuntza ohitura aldatzea da garrantzitsuen»

ANE GOIKOETXEA eta **JESUSA IRASTORZA** Euskaldun zaharrak

• **Nola animatu zineten tertuliak programan parte hartzera?**

J. Deialdia ikusi nuen eta denbora libre nahikoa neukanez, izena ematea erabaki nuen, euskaldun berriei laguntzeko programa polita iruditu zitzaidan. Bi urtean egon naiz eta aurtengoa hirugarrena izango da.

A. Ni hasieratik apuntatu nintzen. Oso interesgarria iruditu zitzaidan. Bost edo sei urte daramatzat honetan.

• **Zeri buruz hitz egiten duzue?**

J. Edozein gairi buruz hitz egiten dugu, momentuan ateratzen dena. Helburua beraien artean hitz egitea da, guk lagundu bakarrik egin behar diegu. Euren artean hitz egiteko daukaten ohitura oraindik gaztelera da, eta hori aldatzea da garrantzitsuen.

A. Beraiak ez daukate inguruan euskaraz hitz egiteko aukerarik. Umeekin egiten dute, baina erderarako joera daukate. Hori aldatzea da inportanteena.

Gainera, pertsona batekin beti erderaz hitz egiteko ohitura duenak, euskaraz ikasi arren, pertsona horrekin erderaz egiten jarraitzen du normalean.

• **Euskara batuan edo kaleko hizkeran egiten diezue berba?**

J. Euskara baturako joera daukat nik. Eurak batua errazago ulertzen dutela uste dut. Hala ere, batzuk badute elgoibartarrez hitz egiteko joera.

A. Ni Gaztelukoa naiz, Elgoibarren urte mordo daramatzat, eta askotan nik neuk ere ez dakit nongo euskara erabiltzen dudana, baina euskaldun berriekin nagoenean euskara batua erabiltzeko joera daukat. Nahigabe gainera, poliakiago hitz egiten dudala uste dut.

• **Ezezagunekin euskaraz hitz egitea erraza al da?**

J. Guretzako bai, beraiantzako da zailagoa. Ezezagunak izatetik lagunak izatera pasatu gara, eta ia bazkaritxo bat ere egin genuen elkarrekin.

A. Bai, horretara goaz eta erraza da. Nik gehienak ezezagunak nituen, eta azkenetarako lagunak egin gara. Denetarik hitz egiten dugunez, elkarri buruzko informazio asko eskuratzen dugu.

• **Gustura joaten al zarete tertulietara?**

J. Bai, astean ordubeteko konpromisoa hartzea ez da batere kostatzen.

A. Behin ordubete egon beharrean, bi orduz jardun genuen berbetan, konturatu gabe pasatu ziztaigun denbora.

• **Tertulietatik kanpo erbiltzen al dute euskara?**

A. Denetarik dago. Batzuk asko jartzen dute beren aldetik. Lanbide eta izakerak asko laguntzen du.

• **Igarri al duzue eboluziorik beraien euskara mailan?**

J. Bai. Euren artean euskaraz hitz egiteko joeran igarri dut eboluzioa.

A. Lotsa eta beldurra kentzea lortu dugu, eta lasaiago egiten dute euskaraz.



[PROTAGONISTA]



Baleriana **Ulazia**

100 urte bete zituen Baleriana Ulaziak joan zen irailaren 15ean. Zorionak! Jaiotzez mendararra da Baleriana, Mendarozabal auzoko Andikoetxe baserrian jaiotakoa, hain zuzen ere. Madrilerara ezkondu zen, eta bere hiru seme-alabak bertan jaio ziren. Hamar anai-arreben artean zaharrena da. Gaur egun, bera eta beste bi anai-soilik bizi dira. Balerianaren alabak kontatu digunez, osasunez oso ondo dago ama, nahiz eta batzutan ohetik jaikitze gogorik ez eduki. Honen sekretua? bizitza osoan lan asko egindako emakumea dela esan digu

[NOTIZIA]

Errotaberritik Arregitorrerako eskailera mekanikoak martxan jartzeko prest

Errotaberri auzoa Arregitorre auzoarekin lotuko dituzten eskailera mekanikoak joan zen astean kokatu zituzten bere lekuan. Badirudi dena prest dagoela, eta beharrezko proba guztiak egin ostean jarriko dituzte martxan.

32 metroko eskailerak

Herriko eskailera mekanikoen artean azken hauek dira luzeenak. 32 metroko luzera daukate. Eskailera mekaniko hauek Marañoñ ingurunetik Basarte, IMH, Mintxeta eta Kiroldegirako ibilbidea erraztuko dute. Eskailera mekanikoen alboan, goitik behera jaisteko oinezko eskailera batzuk eraiki dira. Eskailera hauek igotzeko ere erabiliko dira eskailera mekanikoak izorratuta



daudenean, izan ere, herritarren segurtasuna bermatzeko ezin izango baitira eskailera mekanikoak erabili izorratuta daudenean. Dagoeneko 8 lekutan jarri dira eskailera mekanikoak: Urasandin 6, Artekalen beste bat eta azkena Errotaberri auzoan.

[ZENBAKIA]

11.500

Urtarriletik irailera bitartean 11.500 kilo arropa birziklatu da Elgoibarren, biztanle bakoitzeko kilo bat gutxi gorabehera. Eskualdeko batez bestekoa biztanleko 1,5 kilo da, Elgoibar beraz, horren azpitik dago. Eskualdean Deba eta Mendaro izan dira erropa gehien birziklatu dutenak, eta Elgoibar gutxien.

asteko [ARGAZKIA]



Datorren urriaren 23an egingo zaie omenaldia odol emaleei Arraten. Horien artean 50 aldiz odola eman duten hiru gizon elgoibartar ditugu: Jose Inazio Korta, Vicente Irazabal eta Jose Luis Ramón. Emakumeek gutxiagotan eman ahal dutenez odola, 40 aldiz eman dutenak omenduko dituzte. Horien artean hiru elgoibartar aurkitu ditugu: Arantza Andonegi, Maritxu Aranberri eta Amaia Mujika. Eskualdeko odol emaleekin batera, meza nagusira joango dira Arratera eta gero bazkaria egingo dute.

Josu Jon Imaz eta Joseba Egibar izan ziren Batzokiaren inaugurazioan



Elgoibarko dultzaineroen kalejirak eman zion hasiera Batzokiaren inaugurazio ekitaldiari joan zen larunbatean, hilaren 8an. Goizeko 11:30ean hasita, herriko kaleetan zehar entzun ahal izan ziren dultzaina doinuak. 12:00ak aldera iritsi ziren EAJko agintariak Plaza Handira. Josu Jon Imaz eta Joseba Egibar alde batetik, eta Elgoibarko EAJren izenean Marivi Agirregomezkorta Elgoibarko alkatea, Alfredo Etxeberria Elgoibarko EAJko presidentea eta beste hainbat alderdikide hurbildu ziren. Haritz Euskal Dantzari Taldeko kide batek aureskua dantzatu zien ongi-etorria

egiteko. Honen ostean, EAJko alderkideak Batzokira igo ziren Josu Jon Imaz eta Joseba Egibarrek eskainitako hitzaldi politikoa entzutera. Ondoren luntxa egon zen Batzokian bertan, eta gero bazkaria egin zuten Sigma jatetxean. Honenbestez inauguratuta gelditu zen Elgoibarko Batzoki berriua.

Elgoibarko EAJk 100 urte

Elgoibarko EAJren mendeurrena ospatzeko ekitaldiak bukatuz doaz. Hala ere, oraindik "Nunca más: gerra irudiak" erakusketa ikusgai dago Kultur Etxean bihar arte.

Nerea Sanz izan da "Bai ala Ez" lehiaketako irabazlea



Hilabete honetan Nerea Sanz izan da BARRENe "Bai ala Ez" ataleko irabazlea. Nereak bi lagunentzako afaria irabazi du Gabi jatetxean. Berak nahi duenean eta nahi duen pertsonarekin afaltzeko aukera izango du, beraz. Datorren hilabetean, Debako Kresala Talasoterapia hotelean bi lagunentzako zirkuioa zozketatuko dugu. Lehiaketan parte hartzea oso erraza da. Astero-astero BARRENe bai ala ez erantzuteko galdera bat azalduko da. Erantzunak e-postaz edo sms bidez 7744 zenbakira bidali daitezke. Hilabete amaieran egingo dugu zozketa.

[MOTZ-MOTZIAN]

Gaztetxuloren autobusa urriaren 20an Elgoibarren

Donostiako Gaztetxulo aldizkariak 5 urte bete ditu urrian, eta hori ospatzeko Gaztetxulo Busa egitasmoa jarri dute martxan. Astebetez, Euskal Herri osoan zehar ibiliko da autobusa, bost geldialdi nagusi eginez. Hainbat solasaldi eskainiko dituzte, euskarazko kultura gaztearen diagnosis egiteko asmoz. Honetaz gain, beste herri batzuk ere bisitatuko ditu. Elgoibarren urriaren 20an egingo du geldiduna.



Merkatu Plazako zozketa

Pepita Mugerza, Maria Asun Aldabe eta Ana Otaegi izan dira hilabete honetan Merkatu Plazako zozketako irabazleak. 60 euroko txeke bana jaso dute Merkatu Plazan gastatzeko. Zorionak!



Errosario kaleko jaietako zozketa

Errosario kaleko jaietan egindako zozketaren zenbaki irabazleak ondorengoak dira: 1. saria 0085 (ordezkoa 0841), 2. saria 0868 (ordezkoa 1241) eta 3. saria 1250 (ordezkoa 0190). Sarituek Gorostiza liburudendara jo dezakete.

Inkesta

Datorren urtetik aurrera ezingo da enpresetan eta leku publikoetan erre.

Imajinatzen al duzu Elgoibarren kerik gabeko tabernarik?

YOLANDA ALVAREZ

Etxekoandrea

34 urte



“Nik ez dut erretzen eta gustatuko litzaidake, baina zaila ikusten dut. Kontraesaneko legea da. Estatuak tabakoa saltzen du eta gero erretzea debekatu. Arraroa da.”

ION JAUREGI

Tren gidaaria

45 urte



“Legea sartzen denean bai. Lantegietan seguru, jatekxetan ere, eta aurrerantzean tabernetan ere bai. Tabakoaren kontrako gerra handia dago.”

MIGUEL RUBIO

Jubilatua

66 urte



“Ez. Taberna gehienak txikiak dira eta ezin izango dute erretzaileentzako bakarrik den gunea jarri. Niri gustatuko litzaidake, ez dut erretzen eta keak traba egiten dit.”

ROSA PIÑEIRO

Garbitzailea

43 urte



“Ez. Erretzailea naiz, eta tabernetan erretzea debekatzaren badute ez naiz joango, eta jatekxetara ere ez. Hori lortzen bada jendeak etxean hartuko du kafea.”

[BAI ala EZ?]

Joango al zinateke espazioara oporrak pasatzera?

BAI %33

EZ %67

“Bai, izarrak, planetak eta zulo beltzak ikusteko. Esperientzia paregabea izan behar du grabitaterik eza sentitzeak. Baina 20 milioi dolar ez ditugunez, Kutxaespaziora joanda konformatu behar.”

“Toki interesgarriak badaozela pentsatzen dot, gainera, tokiak ezagutziaz gain, bertako jendia, kultura, ohiturak... ezagutzia gustatzen jata eta espazioak ez du holako aukerarik ematen.”

Datorren asterako...

Euskal Herriko biztanleen %18ak insomnioa dauka.


Ondo egiten al duzu lo?

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) ERANTZUNA

7744 zenbakira

SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.



Hurrengo hilean 2 pertsonentzako zirkuito bat zozketatuko dugu **Kresala** hotelean. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!
www.aisiahoteles.com

Pilarika Eguna ospatu zuten urriaren 12an Pilar Ikastetxean

Urtero bezala, Pilar Ikastetxeko ikasle, irakasle eta gurasoek Pilarika Eguna ospatu zuten joan zen asteazkenean, urriaren 12an. Hori dela-eta, ekintza desberdinak antolatu zituzten egun honetarako: eguerdiko 12:00etan meza izan zen ikastetxeko gimnasioan, eta honen ostean, Pilar Ikastetxeko Guraso Batzordeak antolatuta janaurrekoa edo luntxa izan zen. Honetaz gain, aste osoan zehar kirol txapelketak izan dira. Nor baino nor aritu dira Pilar Ikastetxeko ikasleak futboleak eta pilotan. Joan zen asteartean, urriaren



11n, jokatu ziren finalak, eta eguerdian sariak banatu zituzten. Bestalde, ikasleentzako jokuak izan ziren. Giro onean ospatu dute beraz, Pilarreko Ama birjinenarena astea.



Txileko Salesiatar koordinatzaileak IMHn formatuko dira

2005eko urrian zehar, Txileko Don Boscoko Salesiar komunitateko egoitzen koordinatzaile talde batek IMHn jasoko du formazioa. Egonaldian zehar, Euskadiko ikastetxe desberdinak bisitatuko dituzte. IMHk hamar urte daromatza Txileko Hezkuntza Ministerioarekin elkarlanean. Jarduera honen ondorioz, proiektu desberdinak garatzen ari dira, besteak beste, egungo Salesiatarrentzako formazioa eta Valparaisoan eta Atacaman egingo diren proiektuak.

[IKAS KONTUAK]

Bikingo jaia

Atxutxiamaika Aisialdi Taldearen eskutik Bikingo jaia izan zen larunbatean Plaza Handian. Etxeko txikienek izugarri gozatu zuten eskulanak egin, globoak puztu eta aurpegia margotuz. Giro bikaina izan zen Plaza Handian.



Agur Koldo eta Edurne

Koldo Leibar eta Edurne Lasa Elgoibar Ikastolako irakasleak jubilatuko dira. 30 urte pasa Elgoibarko Ikastolan aritu ostean, erretiratzeko ordua iritsi zaie.



Meka proiektua

Elgoibar BH Institutuak Meka proiektua jarriko du martxan. Karrozeria eta karentze lanetan erreferentia izango den proiektua da, eta bailaran eta Euskadi osoan, dagoen heziketa eskaerari, hau da profesional kualifikatuen beharri, erantzuteko sortuko da. Urriaren 5ean bilera egin zuten udaletxean proiektuaren berri emateko. Marivi Agirregomezkorta alkatea, udal ordezkariak, Jose Antonio Campos Jaurilaritzako Hezkuntza Sailburua, makina-erremintako ordezkariak, eta Institutuko Iñaki Konde eta Agustin Agirre izan ziren bertan.

[IRTEERAK]



Herri Eskolakoak Xoxoten izan ziren

Herri Eskolako Mendi Taldeak antolatuta, Xoxotera egin zuten irteera ikasle, guraso eta irakasleek. Eguraldi txarra egin zuten arren, talde ederra osatu zuten. Loiolako San Inazioaren monumentua bisitatu eta Xoxoteko aterpetxean hamaiketako egin zuten. Hurrengo irteera Billabonako Finalista Eguna izango da.

ZARAGOZAKO NEKAZAL KONGRESUA

Arno Mendiguneari buruzko ikerketa aurkeztu zuen Ibai Portuk

Lau urtean behin ospatzen da Nazio Mailako Nekazal Kongresua Estatuko hiriburua desberdin batetan. Aurtengoan Zaragozan izan da. Kongresu honetan nekazaritza, baso edo mendiek zerikusia duten ikerketa lanak aurkezten dira. Ibai Portu mendarorak Arno Mendiguneari buruzko ikerketa sakona burutu du, eta Debegesa, Mendaroko eta Mutrikuko Udalen laguntzaz Zaragozan aurkezteko aukera izan du.

Ibai Portuk Arno Mendiguneari ezkutatzen dituen berezitasun guztiak aztertu ditu.

Arno, mendigune aberatsa

600 metro inguruko bost menditontor txiki osatzen dute Arno Mendigunea. Arte zuhaitzez beteriko mendigunea da, gainera, Gipuzkoako arterik handienak daude bertan eta oso ondo kontserbatuta. Bestalde, fauna eta begetazio aldetik ere, mota askotako landare eta animali desberdinak biltzen ditu Arno Mendiguneari.

Interes orokorreko gune bezala izendatu zuen Arno Europar Komunitateak, eta mendigunea babesteko plan bat jarri dute martxan.



Mendaroko bost odol emaile omenduko dituzte

Datorren urriaren 23an Debabarrena eta Debagoienako odol emaileen kongresua izango da Arraten. Bertan Deba Bailarako hainbat odol emaile omenduko dituzte, eta horien artean, bost mendarorak dira: Jesus Larrañaga Olazabal, Jose Manuel Muñoz Diaz, Modesto Oliden Pagoaga, Juana Garate Elorza eta Maria Jose Oliden Villar. Egun hau ospatzeko, Arraten Meza Nagusia izango dute, eta ondoren bazkaria egingo dute Kantabria jatetxean. Aipatu beharra dago, bestalde, ia 182 odol donazio egin zirela Mendaron. Herritar ugari laguntzen du gai honekin. Mendaroko lehen odol donazioa 1984ko maiatzaren 24an egin zen.

Ikastaroak

Urtero bezala, Mendaroko Udalak denbora liberarako hainbat ikastaro antolatu ditu. Eskulan eta dekorazio ikastaroa alde batetik, eta marrazketa eta pintura ikastaroa bestetik. Ikastaro hauek astean behin izango dira. Interesatuak Udaleko Kultura Sailean eman dezakete izena, edo bestela, 943033282 telefonoan.

Laster bukatuko dira trenbideko obrak



Mendaroko trenbidea konpontzeko lanak erritmo onean doaz, eta laster bukatuko dituzte. Mendaroko tren estazioan egiten ari diren obra hauen helburua nagusia Eusko Tren Enpresak atera dituen irisgarritasun lege berriak betetzea da. Honela, andenen altuera igotzeko egingo dute trenaren atearren parean gelditzeko. Bestalde, bi markesina berri eraikiko dituzte, bidaiariak euri egunetan busti ez daitezkeen.



Edu Gomez, publizitatera jauzia

Ezaguna egingo zaizue aurpegi hau, ezta? Edu Gomez mendararra da. Modelo lanetan hasi zen, eta orain publizitate mundura egin du jauzia. Euskadiko Kutxak Mendaroko mutil gazte honen aurpegia erabili du bere kanpaina berrian. BARRENen elkarrizketa egin genionean moda munduan bameratzea nahi zuela kontatu zigun eta badirudi gauzak ondo doazkiola.





MAIALEN OLAZABAL

Urruzuno Literatura Sariako irabazlea

«Bertsoari bukaera on bat bilatzea da gauzarik zailenetakoa»

Euskal dantzetan iaioa, bertsozalea... euskal neska petoa da Maialen Olazabal (17 urte) mendararra. Medikuntza ikastea gustatuko litzaiokela aitortu digu baina bien bitartean literatur sarien bilduma egiten du. Azkena, Urruzuno Literatura Saria bertso idatzien atalean. Bertsoan Egaña eta Lujanbio miresten ditu eta Sarrionandiaren prosa gogoko du.

- **Idazlea, bertsolaria, dantzaria... nola definituko zenuke zure burua?**

Denetarik dut zerbaite, eta saltsa askotan ibiltzea gustatzen zait, baina ikaslea naiz guztien aurretik edo gaintik. Gainontzekoak nire zaletasunak dira.

- **Nondik datorkizu bertsozaletasuna?**
- **Noiz idazten dituzu bertsoak?**
- **Urruzuno Literatura saria irabazi duzu bertso idatzien atalean. Zeren inguruan idatzi zenituen bertsoak?**

ezberdinak daudela konturatzeko balioko dio. Dena ez dela norbere ikuspuntura mugatzen, alegia. Horretaz gain, bere lagunarekin haurtzaroan bizitako oroitzenak ekarriko dizkio gogora. Gai tristeak aukeratzeko joera daukat, barruan dauzkadan sentimenduak kanporatzeko joko gehiago ematen baititdate.

- **Ez al zara bat-bateko bertsoekin ausartzen?**
- **Polonian 10 eguneko bidaia izan da saria, ezta?**



«Gai tristeek sentimenduak kanporatzeko joko gehiago ematen dute»



GAZTIA NAIZ

Gazte tertulia...

EMAKUMEAK

KARL MARX-EK ERLIGIOA ZELA BERE GARAICO HERRIAREN OPIOA ALDARRIKATU ZUEN, BAINA EGUN FUTBOLAK HARTU DU HAREN LEKUA, DUDARIK GABE. FUTBOLAZ POLITIKA EDO GIZARTE GAIEZ BAINO GEHIAGO BERBA EGITEN DA KOMUNIKABIDEETAN ETA FUTBOL ZALEAK EZ DIRENAK ERE ADITU BIHURTZEKO BIDEAN DIRA JADA. ASTE HONETAKO GAZTE TERTULIAN EMAKUMEEK FENOMENO HAU NOLA BIZI DUTEN IKUTU NAHI IZAN DUGU. HORRETARAKO LAURA MUGICA ETA IRENE ELORZA, FUTBOLZALEAK ETA FUTBOL JOKALARIAK DIREN BI NESKARENGANA JO DUGU.

Futbol zaleak al zarete? Zer neurrira arte?

Irene: Futbolzaleak izan, oso zaleak izan gara, baina orain ez horrenbeste. 3 edo 4 urtetik hona beste intentsitate batekin jarraitzen dut futbola. Anoetara joaten naizenetan animatzera noa, bufanda eta guzti, baina futbol zelaitik kanpora ez dut futbola jarraitzen. 'Forofo-forofoak' diren zaletuengandik bereizten naizela uste dut.

Laura: Nik ere futbol partidak ikusten ditut, baina ez lehengo pasio berarekin. Lehen Realak, Bartzelonak edo Eibarrek non jokatzen zuten zain egoten nintzen eta denak jarraitzen nituen. Hiru edo lau partida ikus nitzakeen asteburu batean. Aitortzen dut nerabezaroan, 18 urterekin, futbola pasio bat zela niretzat, baina adinean aurrera egin ahala pasioa apaltzen joan da. Gazteagoa zarenean ez zara konturatzen bizitzan, futbolaz aparte, beste gauza batzuk daudela.

“Oso futbolzalea izan naiz, orain ez horrenbeste”

IRENE

Irene: Nik ez dut uste adin kontua denik. Futbol zelaia adin guztietako jendez gainezka daude eta 'forofo' asko ez dira gazteenak, ezta urrik ere. Nire kasuan, lehen futbolarik betetzen zuen lekua beste gauza batzuekin betetzen dudala uste dut.

Liga noiz hasi irrikitan egoten diren horietakoak al zintzen?

Laura: Lehen bai. Baina liga hasteko irrikitan baino gehiago ekipoko jendea berriz ikusteko gogoia izaten nuen San Bartolome jai inguruan.

Irene: Horrenbestera ez. Alderantziz ere, denboraldia noiz amaituko desiatzen egoten naiz batzuetan.

Futboleko jokatzen hasi aurretik gogoko zenuen futbola edo gero hasi zintzen zaleak?

Irene: Txikitatik gustatu izan zait. Hamar urtean Elgoibarko nesken futbol taldean jokatu dut eta orain Azkoitian jokatzen dut.

Laura: Niri ere betidanik gustatu izan zait. Irenerekin bateratsu hasi nintzen Elgoibarren jokatzen eta iaz Azkoitian jokatzen egon ostean, laga berri dut.

Telebistan futbol gehiegi botatzen dutela iruditzen al zaizue?

Laura: Agian lehen gehiago, baina orain ez horrenbeste.

Irene: Ez zait horrenbestera iruditzen. Egia da "Pay per view" edo ikusteagatik ordaindu sistema horrekin norberak aukeratzen duen partida ikus dezakeela, baina norberak aukeratzen du.

Eta futbola batera gustuko ez duen pertsona baten azalean jarriko bazinate?

Laura: Baliteke telebistan futbol gehiegi dagoela esatea, batez ere kate batzuetan. Europako Txapelketa tokatzen denean gerta liteke, astearte, asteazken eta asteburuan partiduak botatzea, havei futbolaren inguruko saio guztiak gehitu.

Gustatzen al zaizue futbolarik igandetan tabernetan sortzen duen giroa?

Irene: Bai, baina futbola gustatzen ez zaienen larruan jarriz gero, ulertzen dut gehiegizkoa iruditzea. Denak telebistari begira, bozgorailuak topera... eta futbol zelaian baleude moduan hartzen dute zale batzuek.

“18 urterekin futbola pasio bat zen niretzat”

LAURA

Futbola bera inguratzen duen guztia jarraitzen al duzue?

Irene: Lehen bai. Kirolez-kirol ikusi, egunkarietako kirol orriak irakurri, azken fitxaketen berri izan, etab. Orain, aldiz, begiradaxo bat botatzen dut gogoko taldeak zer egin duen jakiteko eta kitto!

Laura: Nik ere antzera, baina lehen inork ez ninduen jokoz kanpo harrapatuko edozer galdetuz gero. Futbolari bakoitzaren jatorria, jokatze modua edo dena delakoa esango nizuke. Mutilekin futbolaz eztabaidatzean, berriz, ez dut nekienaz harrituta geratu denik ezagutu.

Nola bizi dituzue futboleko "pikeak"? Futbola askotan al da elkarrizketetako gaia?

Laura: Batez ere taldeko kideekin berba egiten nuen futbolarik, eta pikeak egon

BARREN

eta FUTBOLA

badaude, baina "pike" sanoak beti. Bat Madrilekoa dela, bestea Bartzelonakua, beste hiru Athleiceuak direla...

Irene: Txikitan gogorragoak ziren "pike"-ak.

Nola konpontzen zarete futbola gustuko ez duten lagunekin?

Laura: Orokorrean nire inguruko lagun gehienei gustatzen zaie futbola, gizartean ohikoena den legez. Futbola gogoko ez duten lagunek beriz futbol aukera gehiegi dagoela-eta kexatzen dira; astegun buruzurian futbola, asteburuetan eta gero udan ere bai Eurokopa edo Mundiala tokatzen bada. Isilik geratzen naiz eta kitto!

Irene: Lagun gehienei gustatzen zaie, baina ez dut inguru radikal edo forofoegia bizi. Futbola ikustera koadrilan joan izan naiz.

Zer taldetako jarraitzaileak zarete?

Irene: Ni Realeko jarraitzailea izan naiz betidanik.

Laura: Nire kasua berezia da. Bartzelona da nire talde kuttuna, baina Realeko bazkidea naiz. Bartzelona urrunegi dagoenez, Anoetara joan behar futbola ikustera. Realeko bazkide izan naiz urte askoan, gaizki eta ondo egon denetan, baina orain bazkide izateari ustekotan nabil. Futbola ikusten jarraituko dut, baina horrenbeste urtean Anoetara joateaz nekatu naiz.

Nola bizi dituzu Reala eta Bartzelonaren arteko partidak?

Laura: Beti janzten dut Bartzelonako zerbait, bufanda edo zerbait. Gainera, ni moduko lau edo bost elgoibartar elkartzen gera.

Irene: Halere, nik beti esan dut Realekoa dela. Azkenean kariñoa hartu dio.

Zuen taldeak galdu edo irabazi, ba al du eraginik zuen animoan?

Laura: Geuk jokatzen genituen partidak galdutakoan tristetzen ginen. Batez ere, partida denak irabaztera ohitu ginen garaian. Porrotak latzagoak dira irabaztera ohitzen zarenean eta gaizkiago bameratzen dira.

Irene: Realak galtzen zuenean, bazuen eraginik nigan, baina orain ez horrenbeste. Uste dut orain garaipenak eta porrotak erlatibizatzen ikasi dugula, gauza bakoitzari dagokion garrantzia ematen, alegia.



SAGARDOTEGI IBILTARIA

Txankakuak 300 litro sagardo eskainiko ditu bihar, hilak 15



Txankakua Merkatarien Elkarteak antolatuta Sagardotegi Ibiltaria iritsiko da bihar, hilak 15, Elgoibarrera. Sagardotegietako giroa kalera atera nahi du ekimen honek. Helburu horrekin, Saizar sagardotegiko 300 litro sagardo dastatzeko aukera izango da Nafarroa plazan jarriko diren kupeletan. Kupelekin batera hainbat pintxo izango dira aukeran.

Goizeko 11:00etan hasiko da Txutxu trenaren herriko kaleetan gora eta behera. Txotx'a, berriz, 12:00etatik 14:30era luzatuko da. Bestalde, Txankakuako txartelak ateratzeko aukera izango da. Bai txartelak ateratzeagatik eta bai sagardoa edateko edalontzia erostezagatik opariak jasoko dira trukean. Bertsolariak eta trikitilariak alaituko dute giroa.

"Como agua para chocolate" antzezlana gaur, Herriko Antzokian

Laura Esquivel idazlearen "Como agua para chocolate" eleberrian oinarritutako izen bereko antzezlana eskainiko du Ados Teatra konpainia entzutetsuak gaur, hilak 14, Herriko Antzokian (22:15). Amodioa eta pasioa, usadio zaharrak eta jatordu onei buruzko istorio hunkigarria sortu zuen idazle mexikarrak. Garbi Losadak idatzi du antzerkirako bertsioa eta berak zuzenduko du. Bere aginduetara hamar aktore arituko dira. Martxel Rubiok antzeztuko du Pedro eta Tania de la Cruzek Tita.




Txekorraren zozketa

Elgoibarko Aiastiako (San Migel) jaietako txekorraren zozketako zenbaki saritua 8.174 zenbakia izan da. Jadanik azaldu da txartelaren jabea, Eibarko Pakito Ansola jauna.

Santi Ibarretxeren jazz kontzertua datorren barixakuan

"Debajazz" edo Debabarrenako Jazz Jaialdia antolatu dute Gaztelupeko Hotsak disketeak eta Errabal Kultur Elkarteak bigarren urtez jarraian. Ekimen honek jazz doinuak ezagutaraztea du helburu eta hainbat kontzertu antolatu dituzte Debabarrenako herrietan (Eibar, Deba, Soraluze eta Elgeta). Gauzak horrela, Santi Ibarretxek urriaren 21ean, datorren barixakuan (22:15), eskainiko duen kontzertuak ekarriko ditu jazz doinuak Elgoibarrera. Musikari bilbotarrak bakarka atera duen lehen diskoa, "Private" defendatuko du Herriko Antzokian. Piano eta flauta klasiko ikasketak eginak ditu eta bederatzi urtez Copenhaguen bizi izan da. Handik



itzultzean Primital (surrealismo musikal, dadaista, komiko eta funky-a) kontzeptua sortu zuen Fran Rubio pianojolearekin batera. Bost filmetako soinu bandaren egilea ere bada eta Carmen Paris abeslariaren zuzeneko kontzertuetako musikaria.

Puzelaraino eramán zituen euskal dantzak Haritzek



Haritz Euskal Dantzari Taldeak Valladoliden eskaini zuen emanaldia joan zen urriaren 8an. "Pilarica" Koru eta Dantza Taldeen Elkarteak gonbidatuta joan ziren elgoibartarrak puzela aldera eta Gaztela Leongo hiriburuko Rafael Cano plazan egin zuten euskal dantzen erakustaldia. Haritz Euskal Dantzari Taldeko kideekin batera Segobiako, Salamankako eta Valladolid bertako folklore taldeak aritu ziren.

SAN PEDRORA TXIRRINDULARI IGOERA

Iñigo Larizen laugarren garaipena



Iñigo Larizek San Pedrora Txirrindulari Igoeran lortzen duen laugarren garaipena eskuratu zuen Pilarika Egunean, euripean jokatu zen lasterketan. Debabarrena afizionatu mailako taldeko txirrindulariak neurria hartuta dio probari eta horrela erakutsi zuen Plaza Handia eta San Pedroko gainera arte dauden ia lau kilometroko aldapa gogorretan. Berak ezarritako errekorretik (13:21) 15 segundura geratu zen Lariz. Bigarren, hirugarren eta laugarren postuetan iazko protagonista berberak sailkatu ziren. Jorge Gonzalez (14:24) bigarren, Jose Mari Fernandez "Suso" (15:00) hirugarren eta Iñigo Ortuoste (15:07) 4. postuan sailkatu ziren. Xabier Elgezua izan zen bostgarren. Emakumezkoetan Ane Mendia plaentxiarra izan zen onena 20:29 denborarekin. Guztira 60 lagunek parte hartu zuten igoeran, iaz baino lau txirrindulari gutxiago.

Palentziako mendietara irteera Santu Guztien jaizubian

Morkaiko Mendizale Elkartearen hurrengo irteerak Palentziako mendiak ezagutzeko aukera eskainiko du. Espigüte (2.450 m.), Curavacas (2.524 m.) edo inguruko beste tontorrek igotzeko aukera paregabea izango da eta baita Camporedondoko urtegi inguruan mendi itzuli polit bat egitekoa ere. Eski estazio bat egitekotan dabilza ingurune honetan eta dagoen moduan ikusteko azken aukeretako bat izan daiteke. Pirineoz gain beste mendi batzuk badaudela ezagutarazi nahi dute Morkaikokoek irteera honekin eta bat baino gehiago Palentziako paraje hauekin harrituta geratuko dela adierazi digute. Urriaren 28an izango da irteera Plaza Handitik eta urriaren 31n itzulera.

"Metala" k irabazi zion apostua "Katalo"ri

Argazkiko bi pilotari hauek; Asier Garate "Katalo" eta Oier Goikoetxea "Metala II" dira eta esku pilota apostua jokatu zuten Azitaingo frontoian. Partida parekatua jokatu zuten eta ez zen emoziorik falta izan. Azkenean Metala II.ak aurkariak hasieran laga zion 6 eta Oeko abantaila aprobetxatu eta 22 eta 20 irabazi zuen. Bertan bildutako ikusleek gozamen ederra hartu zutela aipatu digute eta ikuskizuna ospatzeko baba jana egin zuten Aubixan.



Elgoibartar pilotarien lehen garaipena Iparraldekoen aurka



Azken 7 urteetan Errosario kaleko jaietan Elgoibarko eta Iparraldeko pilotarien arteko partidak antolatu dituzte. Urtero iparraldeko pilotaririk onentsuenak etorri izan dira eta orain arte beti irabazten zuten. Aurten, ordea, amore eman behar izan zuten Lagunak Pilota eskolako bikotearen aurrean. Munduko Trinkete txapeldun izandako Aranburu eta Sorhuet etorri ziren iparraldetik, baina Atxotegi soraluzetarrak eta Loiola elgoibartarrak irabazi zuten Plaza Handian. Urduri hasi zen hegoaldeko bikotea, baina partidari buelta eman eta 22 eta 17 irabazi zuten. Pilota partidarekin amaitu dira Errosario kaleko jaiak.

Eskola kirola asteburu honetan hasiko da

Bihar, hilak 15, hasiko da Eskola Kirola programa. Urtero bezala, Elgoibarko eta Mendaroko 8-12 urte bitarteko ikasleek larunbat goizetan hainbat kirolekin parte hartuko dute: minieskubaloia, minisaskibaloia, futbola,

atletismoa, igeriketa...Aurten 300 ikasle arituko dira jarduera hauetan, benjamin eta alebin mailetan. Infantilak klubaren ardurapean egongo baitira Kirolaren Euskal Planak kurso honetarako egin duen aldaketa dela medio.

FUTBOLA (2005-2006 DENBORALDIA)

C.D. Elgoibar klubeko taldeen aurkezpena

C.D. Elgoibar kluba kategoria ezberdinetako bederatzita taldek osatzen dute. Haundik aurtengo denboraldirako dituen berrikuntzak eta asmoak BARRENeko aurreko ale batean aurkeztu genizkizuen. Aste honetan, gainontzeko zazpi taldeen argazkiak eta

jokalarien eta entrenatzaileen izenak aurkezten dizkizuegu (alebinak ez ditugu sartu).

Guztira 184 futbol jokalaria ari dira bederatzita talde hauetan eta 13 lagun aritzen dira entrenatzaile lanetan. Desagertzeko edo Udalaren esku

geratzeko arriskuan egon ostean, jokalarien guraso talde batek hartu zuen klubaren zuzendaritza duela pare bat urte, eta urtero 25 milioi pezetako aurrekontuari aurre egin behar izaten diote. Kirol arloan, jubenilak eta kadeteak nabarmendu ziren iazko denboraldian.



INFANTIL TXIKI

Tente (ezkerretik hasita): Beñat Arriola, Josetxo Garcia, Joseba De Pablo, Julen Ibarluzea, Josu Atxa eta Kaiet Arce.

Makurtuta Unai Camalo, Mikel Arrieta, Josu Espilla, Joseba Lariz, Eduardo Santamarta eta Julen Etxeberria.

Argazkian falta dira: Iban Zapata, Asier Gurrutxaga, Jabier Sarasua, eta Cristian Gala



INFANTILAK (Ohorezko maila)

Tente: Joseba Igartua (ent.), Iker Oñederra, Julen Konde, Illart Urain, Iñigo Plazaola, Ibon Larrea, Jon Casado, Jon Lago, Haritz Larrañaga, Jon Agirre, Unai Zubiaurre eta Alberto Sabando (2. ent.).

Makurtuta: Jon Ortega, Ander Ortega, Aitor Goikoetxea, Joseba Gabilondo, Asier Eizagirre, Asier Karrara, Jon Ander Alvarez, Ander Aranberri, Jordan Galindo eta Jon Arrese.



NESKAK F-8

Tente: Ekaitz Intxausti (2. entrenatzailea), Maider Lazcano, Amaia Konde, Amaia Lersundi, Maitane Caro, Mireia Iriondo eta Juanjo Carrara (Entrenatzailea).

Makurtuta: Ainhitze Ansoategi, Fabrizia Batista, Alazne Martinez, Ane Elorza, Mireia Ayesta eta Ane Gala.

Argazkian falta dira: Andrea Conde, Itsaso Egaña eta Ione Larrañaga.



NESKAK

Tente: Nerea Lazcano, Ane Izeta, Amaia Zabaleta, Maider Oñederra, Saioa De Pedro, Maitane Huidobro, Miren Ramos eta Laura Vegas

Makurtuta: Alberto Hernandez (entrenatzailea), Jone Loiola, Nahia Abad, Cristina Montero, Lucia Dieguez eta Nagore Lueches.

Argazkian falta dira: Maider Rejas, Ainhoa Zapata, Lohitzune Perez, Itsaso Bastarrika, Iruñe Martinez, Maria Azpeleta eta Nerea Rodriguez



KADETEAK

Tente: Mariano (entrenatzailea), Endika Etxaniz, Mikel Hidalgo, Jorge Martinez, Jon Belaustegi, Iñigo Sanchez, Ander Osoro, Adrian Chico, Ivan Tamayo, Aitor Arrese, Borja Fernandez eta Asier Badiola. **Makurtuta:** Ruben Irigoien, Julen Guenetxea, Javi Fernandez, Alex Ruiz, Ander Leon, Borja Ortiz, Patxi Larrea, Mikel Arosa eta Kevin Arrizabalaga



JUBENILAK

Tente: Xabi Alonso (ent.), Jael Lizindia, Ander Izagirre, Igor Ulibarri, Jokin Muñoz, Unai Arce, Hasier Larrea, Aitor Arruabarrena, Andoni Lersundi eta Asier Urkidi. **Makurtuta:** Josu Abad, Jon Gabilondo, Ander Martia, Sergio Martinez, Unai Herrero, Egoitz Zulaika eta Xabi Elorza. **Argazkian falta dira:** Andoni Gomez, Aitzol Arrizabalaga, Patxi Loiola, Gorka Otero eta Mikel Arraiz



ERREGIONALA

Tente: Jose Mari Arruabarrena (delegatua), Andres Olabarria (ent.), Mikel Armentia, Iban Martinez, Andoni Arruabarrena, Unai Mujika, Asier Mujika, Asier Atria, Iñigo Irazabalbeitia, Mikel Lariz, Mikel Ruiz eta Andoni Ulazia. **Makurtuta:** Ander Almenara, Carlos Feijoo, Asier Jauregi, Iban Conde, Antton Mendizabal, Asier Elustondo, Unai Gasteain, Egoitz Rodriguez, Mikel De Pablo eta Haritz Calvo

[EMAITZAK]

FUTBOLA

Elgoibar 3 - Bergara 2 (Neskak F-8)

Elgoibar 1 - Almen Aretxabaleta 4 (Neskak)

ARETO FUTBOLA

Altamira Bar Txutxi 5 - Kenci Elg. 1 (Nazional B)

Denak Pizzak 6 - Lanbroa 2 (1. maila)

PILOTA

Gipuzkoako Txapelketa

Eibar 9 - lagunak (Agirrebeña/Iriondo 22 (Nag. 2. maila)

Lagunak (Conde/Txurruka) 30 - Hernani 11 (Jub. nesk. palaz)

Lagunak (Portu/Atxotegi) 20 - Hernani 22 (Jub. 1. maila)

Erniope 22 - lagunak (Arribilaga/Salegi) 8 (Nag. 1. maila)

ESKUBALOIA

Sanlo 15 - Zarautz 17 (Inf. nesk.)

Zarautz 23 - Pagoaga Sanlo 7 (Kad. nesk.)

Cometel Sanlo 21 - Leizaran 4 (Jub nes.)

Donibane 10 - Umobitza Sanlo 33 (Kad. mut.)

Urola 29 - Tecnomeca Sanlo 10 (Kad mut.)

Donibane 23 - Anit Soflan 20 (Sen. mut.)

Tecnifuelle 20 - Urduliz 22 (Sen. mut.)

Tecnifuelle 25 - Dam-Lea 18 (Sen. mut.)

[AGENDA]

FUTBOLA, Mintxetan

Zapatua, 15

12:30 Elgoibar - Aretxabaleta (Kad.)

18:30 Elgoibar - Aloña Mendi (Jub.)

Domekia, 6

11:00 Elgoibar - Baskonia (Inf. B)

ESKU PILOTA, Ikastolan

Gipuzkoako Txapelketa

Barixakua, 14

21:15 lagunak - Añorga (Kad. 2. maila)

21:45 lagunak - Ilunpe (Jub. 2. maila)

22:30 lagunak - Ilunpe (Nag. 2. maila)

ARETO FUTBOLA Kiroledegian

Zapatua, 15

13:00 Toletxe Kafetegia. - Idiazabal (Jub.)

16:00 Kenci Elg. - Pinturas Izkara (Nazional B)

Domekia, 16

12:30 Lanbroa. - Alko Ondarroa (Nazional B)

ESKUBALOIA Kiroledegian

Zapatua, 15

17:30 Cometel Sanlo - La Salle (Jub. nesk.)

19:00 Pneumax Sanlo - Usurbil (Jub. mut.)

Domekia, 16

9:30 Tecnomeca Sanlo - Groseko (Kad. mut.)

11:00 ANIT Sanlo - Ormaiztegi (Sen. mut.)

OHARRA

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

[LANA]

ESKAERA

- † Neska goizetan lan egiteko prest. Ostalaritza esperientzia. Garbiketa lanetarako eta tailerretarako prest. ☎ 647 144 950
- † Neska gaztea gabez umeak zaintzeko prest. ☎ 628 299 986
- † Neska nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. ☎ 686 578 228
- † Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. ☎ 676 62 38 43
- † Neska harategian lan egiteko prest. Papelak ditut. ☎ 615 00 83 46
- † Emakumea haurrak zaintzeko prest. Urtebeteko esperientzia. ☎ 669 22 35 27
- † Emakumea kamarera, garbiketa edo beste edozertan lan egiteko prest. ☎ 600 28 27 93
- † Emakumea sukaldean, garbiketa lanak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ 690 701 118
- † Emakumea etxeko lanak egiteko prest. ☎ 943 74 22 01 (Araceli)
- † Neska gazte euskalduna aste barruan arratsaldez umeak zaintzeko prest. ☎ 628 59 83 59
- † Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest: elkartek, portalak, etxeak... ☎ 639 88 20 04

- † Emakumea nagusiak zaintzeko prest ospitalean edo etxean. ☎ 943 03 36 05
- † Emakumea orduka garbiketa lanak egin eta plantatzeko prest. ☎ 943 03 36 05

ESKAINZA

- † Neska edo emakume euskalduna behar da umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko. ☎ 636 129 543
- † Jatetxerako kamareroa behar da. Asteburuetarako. ☎ 943 12 12 62
- † Astezun eta asteburuetan tabernan lan egiteko pertsona bat behar da. ☎ 943 742897
- † Psikologoa behar da. ☎ 676 61 70 55
- † Neska edo andra bat behar da 4 urteko umea zaintzeko goizez eta arratsaldez. ☎ 619 643 532

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

- † Pisua salgai Urasandin. 4 logela, 2 komun, dena kanpoaldera. Berritua, gas naturala, leiho hermetikoak, trasteroa, bista ederrak. ☎ 943 74 88 31
- † Etxea salgai Soraluzen. ☎ 943 85 29 99
- † Pisua salgai. Oso eguzkitsua eta ikastetxe baten ondoan. 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldea, garbara. ☎ 666 76 22 95
- † 90m²ko etxebizitza salgai Erretxindin. Berritua. Oso interesgarria. ☎ 651 700 752
- † Pisua salgai Pedro Migel Urruzuno 8an. Igogailua eta berogailuarekin. ☎ 943 53 10 03

ALOKAIRUA

- † Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ 675 467 874

- † Pisua alokatzen da Torrevejan. Igerilekuarekin, hondartzatik 600 metrora. ☎ 628 584 535
- † Pisua alokatzen dut Gasteizen. Erdigunean. 2 logela. ☎ 943 74 18 98
- † Bi logela alokatzen dira. Arropa garbiketa barne. Herri erdian. ☎ 620 740 898
- † Logela alokatuko nioke emakume bati. Pertsona ona izan dadila. ☎ 943 74 0890 (Lola)
- † Atiko duplex-a alokairuan edo salgai Marbellan. Igerilekua, hondartza gertu. ☎ 943 74 02 68 / 699 17 98 72
- † Apartamentua alokatzen da Benidorm-en. ☎ 943 74 06 28 (gabez)

[GARAJEAK]

- † Madalako etxeetan garaje itxia alokatzen da. ☎ 620 135 958
- † Garaje itxia salgai Urasandin. Anaiak eraikuntzan. ☎ 620 431 480
- † Garaje itxia salgai Pista Beltzean. ☎ 943 74 27 78
- † Leku Ederren, 4. solairuan garaje marraduna salgai. ☎ 660 042 159
- † Mendaron, Udaletxe azpian garaje itxia alokatzen da. ☎ 660 042 159
- † Garaje itxia salgai kiroldegi aurrean. Garbilekua, 5,30x2,70. ☎ 609 41 73 52
- † Garaje itxia salgai Madalan. 28 m² ☎ 646 50 28 66

[PARTIKULARRAK]

- † Ingeles klaseak ematen dira etxeetan. Maila guztiak. ☎ 606 73 38 50 (Carlos)
- † Irakasle natiboak aleman klaseak emango lituzke. ☎ 650 729 683

[LOKALAK]

- † Lokal komertziala salgai Urasandin. 27 m² ☎ 627 00 79 50
- † Neska koadrila batek lokal txikia alokatuko luke. Merke. ☎ 695 71 77 25
- † Lokal txikia alokatuko nieke neskei. ☎ 667 838 858

[SALEROSKETAK]

- † Autokarabana salgai. 4-5 pertsonentzako. Ford Transit 2.5D Riviera. Ongi zaindua. Nagusia mekanikoa da eta garajejan lo egiten du. 13.000 euro. ☎ 653 71 49 70
- † Eskopeta repetidora eta paralela kanoia arraiatua salgai. ☎ 943 74 00 79
- † Nintendo DS bideojokua salgai. 2 jokurekin, gutxi erabilia, merke. ☎ 661 42 60 77
- † Izozkailu horizontala salgai. Berriberria. Kolorezko telebista ere salgai. Prezio onak. ☎ 645 70 77 00
- † Motorra salgai. Riegu 49cc. Egoera onean. ☎ 662 130 495

[BESTERIK]

- † Jaka eta barruan neraman telefono mobila galdu nituen urriaren 7an Toletxeko parke inguruan. Mobileko datuak behar beharrezkoak ditut. ☎ 943 53 14 70
- † Caritasek umeentzako kuna eskatzen du. ☎ 943 74 15 09
- † Bernardo Ezenarro kale inguruan pulsera bat galdu dut. ☎ 637 974 283

Elgoibarko BARREN astekarian

ZUZENDARIA BEHAR DA

Eskatzen da:

- Kazetaritza lizentziatua.
- Proiektu bat eta lantalde bat zuzentzeko gaitasuna.
- Harremanetarako dohainak.
- Euskara maila ona (ahoz eta idatziz).

Baloratuko da:

- Esperientzia sektorean.
- Informatika ezaupideak.

Eskaintzen da:

- Urtebeterako lan-kontratua.

Curriculumak jasotzeko azken eguna: urriak 21

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkarte

Ubitarte 4, behea 20870 ELGOIBAR

Informazio gehiago: 943 74 16 26 (Imanol)

E-posta: imanol@elgoibarkoizarra.com

[ZORIONAK]



† Zorionak **Jon** urriaren 17an, 6 urte egingo dituzulako. Familiako guztien partez muxu handi bat.



† Zorionak **Irati** zure 2. urtebetetzean familiako partez. Muxu handi bat Jonen partez.



† Zorionak **Jennifer** bihar 14 urte egingo dituzulako. Familiako guztien partez.



† Zorionak **Oier Arriolari** etxeke guztien partez, hilaren 13an 5 urte egin zituelako. Xabiren partez ere muxu handi bat.



† Zorionak **Maitane Gallastegiri** hilaren 16an 7 urte egingo dituelako. Familiako eta bereziki ahizpa Maialenen partez.



† Zorionak **Nahia** urriaren 20an 4 urte egingo dituzulako. Familiako partez muxu handi bat.



† Zorionak **Unai** datorren asteartean 3 urte handi! Patxo handi bat Oier eta etxeke danon partez.



† Zorionak **bikote!** Ondo pasa bihar! familiako eta bereziki, Jonathanen partez.

† Zorionak **amuma Nikasil** Oso ondo pasa bihar! Familiako guztien partez muxu handi bat.

EIBAR EZKONTZA AZOKA 2005

NON: ARMERIA ESKOLA
(Kantoi gasolindegi parean)

NOIZ: URRIAK 22 eta 23

Larunbatean
17etatik - 21era

Igandean
11etatik - 14ra
17etatik - 21era

- ☞ Erakusketazoka
- ☞ Desfilea
- ☞ Dastaketak
- ☞ KANARIAR IRLETARA
bidaia bat
zozketatuko dugu



*Sarrera dohan *Jende guztiarentzat



[OKINDEGIA]



16 igandea DOÑA MERCEDES



[FARMAZIAK]

- GUARDIA 24 ORDUZ**
- 14 Bidasolo
 - 15 Etxeberria (Santa Ana)
 - 16 Etxeberria (Santa Ana)
 - 17 Fernandez
 - 18 Yudego
 - 19 Zabaleta
 - 20 Etxeberria (Errosario)
 - 21 Ibañez

* Beti dago guardiako farmazia Eibar/Emua zonaldean.

KANPOKO FARMAZIAK

IBÁÑEZ
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

ZABALETA
Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84



[TELEFONOAK]

OSASUNA

Anbulatorioa	943 03 26 10
Larrialdiak	943 46 11 11
Planning-a	943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak	943 74 03 85
D.Y.A (anbulantzia)	943 46 46 22
Gurutze Gorría	943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00
Odol Emaileak	943 74 39 36

UDALA

Euskara Zerbitzua	943 74 43 66
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58
Hirigintza	943 74 43 84
Epaitegia	943 74 16 30
Haziena	943 74 44 14
Mendaroko Udala	943 03 32 82
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08
Udaletxea	943 74 10 50
Udalzaingoa	943 74 13 94
Debemen	943 74 40 67

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	943 74 04 42
PESA (Eibar)	902 10 12 10
Taxi geltokia	943 74 08 98
Bizkaibus	902 222 265

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Kiroldegia	943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa	943 74 30 88
Liburutegia	943 74 35 25
Musika Eskola	943 74 21 45
Mintxeta	943 74 43 15
Parrokia	943 74 08 42
Postetxea	943 74 15 47
Gazte Informazioa	943 74 14 61
KZ gunea	943 74 88 28

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Zaharren Biltokia	943 74 05 26
Eguneko Zentroa	943 74 45 65

IKASTETXEAK

Haur Eskola	943 74 21 41
HII (EPA)	943 74 08 80
Herri Eskola	943 74 08 79
I.M.H.	943 74 41 32
Institutua	
Arreiturre	943 74 80 19
Ezenarro (Meka)	943 74 80 19
Ikastola	943 74 44 41
Pilar Ikastetxea	943 74 13 31



[AUTOBUSAK]

ELGOIBAR - DONOSTIA

Astegunak: 7:10, 7:40, 8:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 14:40, 15:00, 15:40, 16:00, 18:40, 19:05, 20:00, 20:40
Larunbatak: 7:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 15:00, 18:40, 20:00
Igandeak eta jaiegunak: 9:40, 10:30, 13:40, 18:40, 20:00, 20:40
Pesa: 902 10 12 10

DONOSTIA - ELGOIBAR

Astegunak: 6:15, 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30, 19:30, 20:45.
Larunbatak: 8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45
Igandeak eta jaiegunak: 12:30, 17:30, 19:30, 20:45.
PESA: 902 10 12 10

ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA

Astegunak: 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.
Asteburuak eta jaiegunak: 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 20:15.
EUSKOTREN: 943 74 04 42

MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR

Astegunak: 6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena 21:55.
Asteburuak eta jaiegunak: 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.
EUSKOTREN: 943 74 04 42

SIGMA - ARRIAGA

Astegunak: 9:25, 11:10, 12:10, 13:10, 18:20, 19:10
Larunbat lanegunetan: 8:00, 11:20, 12:20, 13:20
EUSKOTREN: 943 74 04 42

ARRIAGA - SIGMA

Astegunak: 9:55, 11:40, 12:40, 18:10, 19:00
Larunbat lanegunetan: 8:10, 11:10, 12:10, 13:10
EUSKOTREN: 943 74 04 42

LARUNBAT GAUEKO ZERBITZUAK

EUSKOTREN: 943 74 04 42

ELGOIBAR-DEBA

1:05, 2:35, 4:35, 6:05

DEBA-ELGOIBAR

12:10, 1:55, 3:40, 5:25

ELGOIBAR-EIBAR

12:25, 2:10, 3:55, 5:40

EIBAR-ELGOIBAR

1:00, 2:30, 4:30, 6:00

[14 BARIXAKUA]

16:30 ANTZERKIA

Antzezlan: "Como Agua para Chocolate" (ikus sinopsia behean)
 Taldea: Ados Teatroa
 Herriko Antzokian

22:30 KONTZERTUA

Arima Beltza
 Kultur Etxeko Sotoan

[15 ZAPATUA]

12:00 SAGARDOTEGI IBILTARIA

Sagardoa, pintxoak, bertsolariak, trikitilariak, Txu-txu trenak, e.a.
 Nafarroa Plazan
 Antolatzailea: Txankakua
 Merkatarien elkarteak

SINOPSIAK

«Sin City»



[16 DOMEKIA]

12:30 UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA

Herriko Antzokian

Zuzendaria: Jose Antonio Osoro

Egitaraua:

"De secos e mangueira" (Oliveira);
"El Barbero de Sevilla" (G. Rossini);
"Grease" (W. Hautvast); "Feuerfest"
(Josef Staruss); "Beatles Collection"
(Lennon/Mc Cartney); "La Vida Alegre"
(Franz Lehár).

[19 EGUAZTENA]

17:00 RAI BUENO IPUIN KONTALARIA

2,4 eta 5 urtekoentzat
Udal Liburutegian

17:30 RAI BUENO IPUIN KONTALARIA

6,7 eta 8 urtekoentzat
Udal Liburutegian

19:30 SANLO ESKUBALO TALDEAREN URTEKO BATZAR OROKORRA

Kultur Etxean

[20 EGUENA]

19:00 GAZTETXULOREN AUTOBUSAREN BISITA

Donostiako gazte aldiakariaren 5. urteurrena ospatzeko
Herriko kaleetan

[21 BARIXAKUA]

22:15 DEBAJAZZ

Debabarreneko Jazz Jaialdia
Musikaria: Santi Ibarretxe (Primital)
Herriko Antzokian

ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

«Sin City»

15, zapatua: 19:30-22:15

16, domekia: 19:30-22:15

17, astelehena: 22:15

«Daltondarrak Lucky Luke»

16, domekia: 16:30

EIBAR, UNZAGA

«Princesas»

14, barixakua: 19:30-22:15

15, zapatua: 17:00-19:30-22:15

16, domekia: 17:00-19:30-22:15

17, astelehena: 19:30-22:15

18, martitzena: 19:30-22:15

19, eguaztena: 19:30-22:15

EIBAR, RIALTO

«Torrente 3»

14, barixakua: 19:30-22:15

15, zapatua: 17:00-19:30-22:15

16, domekia: 17:00-19:30-22:15

17, astelehena: 19:30-22:15

18, martitzena: 19:30-22:15

19, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENEK ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

«Como agua para chocolate» (Antzerkia)

Zuzendaria: Roberto Rodriguez

Antzezleak: Jessica Alba, Benicio Del Toro.

Gizaseme gogor eta bakartiak erakartzen dituen hiri da Sin City. Zenbaitentzat arimarik eta sentimendurik gabeko hiria da. Iluna. Beste batzuentzat beraien bizilekua da. Askok mendekua bilatzen dute Sin Cityn eta beste askok egindako pekatuen barkazioa. Ongia ez da ongi-etorria hiri honetan. Frank Miller komikigileak sortu zuen unibertso liluragarri eta iluna eraman du zinemara Robert Rodriguez ("El Mariachi", "Abierto hasta el amanecer") zinegileak. Frank Miller beraren eta Quentin Tarantinoren laguntzak jaso ditu.



Zuzendaria: Garbi Losada.

Antzezleak: Martxel Rubio, Tania de la Cruz

Titak eta Pedrok elkar maite dute, baina etxeko alabarik gazteenak ama hil artean bere alboan egon behar duela dioten usadio zahar batek ez die lagako elkar maitatzen. Ezintasunaren aurrean, Titaren ahizpa batekin ezkonduko da Pedro, bere maitearengandik gertu egoteko. Egoerak Tita izugarri tristetu arren, onartzea beste erremediorik ez du. Halere, bere sentimendu eta emozioak ezin izango ditu beretzako gorde, prestatzen dituen janariaren bitartez azaleratuko baitira. Bere maitearekin komunikatzeko bitartekoa da.

Atzera begira



1946 . urte inguruko erretratu zahar hau **herritar batek** laga digu. Malape izeneko koadrila agertzen da argazkian. Txiki Egunean ateratako argazkia da, gaur egun Kultur Etxea den eraikinaren aurrean. Bazkaldu aurretik ateratako argazkia da, eta ikusten den bezala, ez zaie umorerik falta. Gogora dezagun zein diren koadrila honetako kideak.

Goian, ezkerretik eskumara: **Vicente Etxabe (†), Jose Mari Mendikute, Sabino Ayarza (†) (zamudiotarra), Frantzisko Zubiaurre, Frantzisko Leiaristi, Ladis Zabaleta (†), Jose Luis Arrese.**

Erdiko hirurak, ezkerretik eskumara: **Victor Arrieta, Antonio Armendia eta Celestino Larrea (†).**

3. ilaran, ezkerretik eskumara: **Jose Mari Mujika (†), Andres Juaristi, Jose Izagirre, Jesus Arrieta, Benito Iruretagoiena (†).**

Behean, ezkerretik eskumara: **Benito Bastida (†), Pablo Alvarez eta Jesus Galarraga.**



ESKERTZA

2005eko urriaren 8an, 80 urte zituela hil zen **Sabin Larreategui Orunaren** sendiak, bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Arrate Garate Zendoia

III. URTEURRENA

Urteurreneko meza izango da, larunbatean, urriak 15, arratsaldeko 19:00etan Parrokian.
Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.

Arrate beti izango zaitugu gogoan.



Zure etxeokak

fadek

Gure bezero eta lagun guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu, igandean gure lokal berriaren estreinaldian egon zirelako. Eskerrik asko denoi!

fadek

errosario, 31 - tel.: 943 74 26 92



Gabi
jatetxea



Nafarroa enparantza • Tel.: 943 74 12 30

- **Eguneko menua**
- **Enpresentzako menua**
- **Bataioak...**

MENU BEREZIA

Aperitiboak
Giltzurrun txikiak jerez erara galeper
arrautzarekin eta foie plantxan
Esparrago trigeroz eginiko krema amuarrain
arrautzekin eta ronkaleko gazta

Itsas-oreina kanela erara eginiko patatekin
edo
Legatza saltsa berdean txirekin

Azpizuna pimentia erara
edo
Ostruka-solomoa ardo beltzarekin

Txokolate zuriarekin eginiko ruloa taffe saltsarekin
edo
Fruituz eginiko brotxeta karamelatua naranja saltsarekin

Prezioa: **28 €** (+b.e.z.)



Gremioen GIDA



Aroztegiak

Biena
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

Etxekit
Erreformak-proiektuak
Antonio Arrillaga, z/g
☎ 943 74 43 47

Garcia
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

Imar
Erreformak
☎ 943 53 14 71
☎ 646 90 55 64
☎ 609 05 49 78

Lodoso
Lelhoak
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabiloia 3. zenb.
☎ 943 74 34 90

Soraluze
Lelhoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ 943 74 36 34

Ulazia
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Proiektu eta erreformak

Estudios Arrillaga
Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698



Iturgintza, berogailua, gasa, eguzki energia eta klimatizazioa

Ongi
Olaso Poligonoa,
15-68 pabiloia
☎ 943 74 28 80

Pagoaga
San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerota
Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44
☎ 659 33 43 23

Tellabide
Azpilgoeta, 19 MENDARO
☎ 943 75 50 62
☎ 607 75 50 62

Zaldúa
Urasandi, 26
☎ 943 74 05 30

Zubizarreta Instalazioak
Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89
☎ 650 58 61 44



Igeltseritza

Antonio Markez
Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

E. Arandía
Urasandi, 17
☎ 605 70 52 04



Elektrizitatea

Aramar
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta
San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Urzelai
Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76



Pinturak

Biok dekorazioa S.L.
Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ipintza
Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40/607 74 04 40



Isolamenduak

Glas Control S.L.
Olaso 27, 47. pabiloia
☎ 943 74 30 94



Indusketa lanak

Lekunberri Indusketak
Indusketa eta indusketa txikiak
Lekunberri baserria
☎ 943 74 20 98/629 42 56 32
koldolekunberri@hotmail.com
www.excavacioneslekunberri.com